

HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/05/27

BILERA ZENBAKIA: 5

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Aitor, Rosi, Emma, Amaia, Tere, Edurne, Amaia, Rut, Maddi, Ekaitz eta Joxe Luis.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Kultur ekintzen errepassoa.

Azken hilabetean egin diren kultur ekintzei buruzko balorazioa egin da.

Festa Batzordea ere martxan jarri dela adierazten da.

Jaietarako aurrekontuak eskatzen hasi direla.


Hurrengo bilera Ekainak 24an izango da.

2. Aurrekontuak

Herri-Bizitza lan taldearen eginkizunetako bat bezala adierazita dago aurrekontu parte-hartzaileak adostea. Horretan laguntzeko, Emma Arrondo diruzainak gidatu du gaurko bilera. Diapositiba batzuen laguntzaz berak jaso dituen elkarte ezberdinen aurrekontuak (sarrerak eta gastuak) kokatu ditu koadro batean. Aurreko aurrekontuei buruzko bileran hitz egin zen ekintza batzuetan Herri-Bizitza lan taldea izan behar zuela motorra ekintza horiek antolatzeko. Horri buruz hitz egin denean ez da ontzat ematen Herri-Bizitza lan taldeak inongo ekintzaren antolatzaile izatea, baizik eta bultzatzaile.

Beraz, Emmak eman dizkigun erizpideak aurrez hitzegindakoari begira zeuden bideratuak, baina lantaldearen egin beharrei buruzko desadostasunak agertzean, ezbaian gelditu dira irizpide horietako batzuk.

Aurrekontuaren kopurua 10.200 €-koa da, elkarte guztien artean banatzeko. Baina ez da garbi erabaki zer irizpide nabarmendu behar diren elkarte bakoitzaren beharrak asetzeko eta zer ekintzetarako den



beharrezkoa dirulaguntza hori ematea.

Ados geratu gara gai honek oraindik ere hausnarketa sakonak behar dituela eta datorren Irailak 30ean Herri-Bizitza lan taldearen bilera gai hau berriro jorratzeko jartzen dugula.

Honek, urte hasieran egin genuen egutegian aldaketa bat sortzen du eta Jubilatuei buruzko herri bizitzako bilera, orain urrirako geratzen da.

Hurrengo bilera Hezkuntza-ri bideratua izango da.

21:10etan bilera amaitutzat eman dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera, Ekainean egingo dugu.		
Gai ordena:		
1. Kultur ekintzei buruzko informazioa.		
2. Herriko Hezkuntza proiektua egiteko zenbait hausnarketa.		